

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko ekainaren 10ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**10.- “OBRA ZIBILEKO PEOIA” IKASTAROA EMOTeko ZERBITZU KONTRATUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.**

**Xedea**

“Obra zibileko peoia” ikastaroa emoteko zerbitzu kontratua behin betiko esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2009ko maiatzaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak “Obra zibileko peoia” ikastaroa emoteko zerbitzu kontratua behin-behinekoz esleitzea erabagi eban.

Bigarrena: 2009ko maiatzaren 25ean behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

**Argudioak**

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita eta, epe horretan, ez da alegaziorik ez erreklamaziorik jaso.

Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak bere eginbeharrak emondako epean bete dauz eta, ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira behin-behineko esleipena behin betiko bihurtzeko.

**Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: “Obra zibileko peoia” ikastaroa emoteko zerbitzu kontratua Gestion 10 Gestion & Formacion SL enpreseari behin betiko esleitzea, eta esleipendunari jakinarazotea 10 laneguneko epean kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko ekainaren 12an.

ONETSIA  
ALKATEA